

Euskal AEn, 2017-18 ikasturtean, 2.080 matrikula gutxiago izan dira Haur Hezkuntzan, 0 eta 5 urte bitarteko biztanleen kopuruak behera egin duelako

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, atzerriko hamar eskola-umetatik lau A ereduko ikastetxeetan daude matrikulatuta

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetan, 2017-18 ikasturtean, 419.578 ikasle egon ziren, guztira, alegia, kopuruak % 0,2 egin zuen behera, aurreko ikasturtearen aldean, Eustaten datuen arabera. Horien barruan, eta zehatzago esateko Araubide Orokorren barruan, nabarmentzekoa da Haur Hezkuntzako matrikulen kopuruaren beherakada, % 2,3koa izan baita, 0 eta 5 urte bitarteko biztanle-kopuruak behera egin duelako.

Ikasleen % 93k Araubide Orokorreko Irakaskuntzak egin zituen (% 0,3ko gorakada); gainerako % 7ak Araubide Bereziko Irakaskuntzak egin zituen (% 5,6ko beherakada).

Lurraldearen arabera, Araubide Orokorreko Irakaskuntzetan, ikasleen erdiak Bizkaian ikasi zuen. % 34k Gipuzkoan eta % 16k Araban. Araubide Bereziko Irakaskuntzetan, Hizkuntzak eta Musika antzeko proportzioan banatzen dira, hiru lurraldeetan, eta Arte Plastikoek eta Diseinuak presentzia handiagoa dute Araban, Dantzak bezala. Bestalde, Arte Dramatikoak eta Kirolak Bizkaian baino ez dira ematen.

Euskal AEko unibertsitatez kanpoko ikasleak, irakaskuntza mailaren arabera, lurraldeari jarraiki. 2017-18 ikasturtea

	Guztira	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa	Aurreko ikasturtearekiko aldakuntza (%)
GUZTIRA	419.578	67.680	211.556	140.342	-0,2
Araubide orokorreko irakaskuntzak	388.677	62.505	193.884	132.288	0,3
Haur-hezkuntza	89.023	14.656	44.156	30.211	-2,3
Lehen hezkuntza	130.625	20.747	65.288	44.590	0,9
Derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBH)	83.225	12.735	41.704	28.786	2,3
Batxilergoa	30.398	4.431	15.475	10.492	0,6
Erdimailako lanbide-heziketa	14.520	2.937	6.816	4.767	0,6
Goimailako lanbide-heziketa	21.505	3.746	9.965	7.794	2,3
Hezkuntza berezia	1.415	272	702	441	2,9
Oinarrizko lanbide heziketa	4.607	609	2.763	1.235	5,1
Helduen hezkuntza (HH)	13.359	2.372	7.015	3.972	-5,2
Araubide Bereziko irakaskuntzak	30.901	5.175	17.672	8.054	-5,6
Hizkuntzen irakaskuntzak	26.896	4.264	15.448	7.184	-5,9
Musika irakaskuntzak	2.668	473	1.407	788	-1,7
Kirol irakaskuntzak	653	0	653	0	-15,5
Arte Plastiko eta Diseinu irakaskuntzak	530	345	103	82	3,5
Dantza irakaskuntzak	115	93	22	0	4,5
Arte Dramatiko irakaskuntzak	39	0	39	0	0,3

Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Araubide Orokorreko Irakaskuntzetan, ikasleak berdin banatu ziren ikastetxe publiko eta pribatuetan, Erdi-mailako Lanbide Heziketan izan ezik (% 60 ikastetxe publikoetan) eta Helduen Irakaskuntzan (ia guztia ikastetxe publikoetan). Ordea, Oinarrizko Lanbide Heziketa ikastetxe pribatuetan kontzentratzen da (% 72).


Aurreko ikasturtearen aldean, Oinarrizko Lanbide Heziketak % 5 egin zuen gora, Hezkuntza Bereziak % 2,9 eta DBHK eta Goi-mailako Lanbide Heziketak % 2,3 biek. Ordea, Helduen Irakaskuntzak % 5 egin du behera, Hizkuntzak (-% 6), Kirolak (-% 15) eta Musikak (-% 2) bezala.

Araubide Orokorreko Irakaskuntzetan Haur Hezkuntzako matrikulazioetan baino ez da egon beherakada, 2.080 matrikula gutxiago (-% 2,3), azken bosturtekoan gertatu bezala, baina eskolatzeta-tasa mantendu egiten da bai Haur Hezkuntzako lehen zikloan (% 50), bai bigarren zikloan (% 100).

Euskal Autonomia Erkidegoa eskolatzeta goiztiarrean (0 eta 2 urte) buru da autonomia-erkidegoetan (% 54ko tasa), batez bestekotik 18 puntu gainerik

Beste autonomia-erkidego batzuekin erkatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan txikienean lehenago izaten dituzte harremanak eskolarekin. 2 urterekin, % 94 eskolatzeta dago, eta, horrela, 23 punturekin gainditzen du Madrilgo Erkidegoa, bigarrena dena, eta 35 punturekin Estatuko batez bestekoa. Aldi berean, 1 urterekin eta 0 urterekin eskolatzeta-erak ere Estatuko batez bestekoaren gainerik daude, ehuneko 8 puntu gainerik.

Haur Hezkuntzako lehen zikloan eskolatzeta ikasleen tasak, autonomia-erkidegoen arabera. 2017-18 ikasturtea




Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika. MEC. Las cifras de la Educación en España (Edición 2019)

Atzerriko ikasle gehiago Oinarrizko Heziketa Zikloetan eta Erdi-mailako Prestakuntza Zikloetan

2017-18 ikasturtean, atzerriko 36.410 ikasle matrikulatu ziren; alegia, ikasle guztien % 8,7. % 95 Araubide Orokorreko Irakaskuntzaren batean, eta % 1 egin zuen gora, aurreko ikasturtearen aldean.

Atzerriko ikasleak Oinarrizko LHko ikasketetan (% 27) eta Erdi-mailako Heziketa Zikloetan (% 12) kontzentratu ziren. Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Goi-mailako LHn proportzioa oso antzekoa izan zen (% 8 ingurukoa), eta DBHn eta Batxilergoan presentzia gutxiago egon zen (% 6tik beherakoa).

Unibertsitateaz kanpoko Irakaskuntzetan eskolatutako ikasle atzerritarrek, hezkuntza-mailaren arabera. 2017-18 ikasturtea



Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Haur Hezkuntzan eta derrigorrezko irakaskuntzan hamar eskola-ume atzerritarretik lau A ereduko ikastetxe publikoetan matrikulatu ziren

Atzerriko ikasleak nagusiki titulartasun publikoko ikastetxeetan kontzentratu ziren, % 10, eta titulartasun pribatukoetan % 5. Hizkuntza-eredua dela eta, aldeak ikusten dira: ikastetxe publikoetan A ereduko matrikulak % 20 dira, B eredukoak % 21 eta D ereduan % 8; pribatuetan, % 10, % 5 eta % 3, hurrenez hurren.


Nabarmentzekoa da atzerriko ikasleek A ereduan ikastetxe publikoetan Haur eta Lehen Hezkuntzan eta DBHn duten presentzia, % 40koa, kasu bakoitzean. B ereduan presentzia ez da hain handia, % 30, % 25 eta % 22, hurrenez hurren.

16 urteko gazteen % 65ek bide akademikoagoa aukeratzen du, eta % 4k lanbide-orientazioa

2017-18 ikasturtean, Batxilergoan 30.398 matrikula izan ziren, eta Erdi-mailako Lanbide Heziketan 14.520.

Genero-ikuspegitik aztertuz gero, nesken presentzia (16 eta 17 urte bitartekoak) handiagoa izan zen Batxilergo ikasketetan (16 puntu gehiago), eta Lanbide Heziketan kontrakoa gertatu zen (7 puntu gutxiago).

Eskolatzeko-tasak, sexuaren eta hezkuntza-mailaren arabera. 2017-18 ikasturtea



Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62